

2011ko urtarrilaren 28a, Datuen Babesaren Eguna

EAEko hiru gaztetik bat kezkatuta dago, bere datu pertsonalen babesa dela-eta


Datuen Babesaren Eguna dela-eta, Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak [Datu pertsonalen babesa](#) txostenean argitaratu zituen datuak aztertu ditu [Gazteen Euskal Behatokiak](#). Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren enkarguz egin zen txostena, eta 2009an plazaratu zen.

Azterlan horren emaitzen arabera, EAEko 18 eta 29 urte bitarteko gazteen %34 kezkatuta daude, erakunde publiko nahiz pribatuek eurei buruz dauzkaten datu pertsonalak egokiro babestuta dauden zalantzaren aurrean. Gainera, %42 kezkatuago daude duela bost urte baino.

Gazteek erraz ematen dituzten datuak honako hauek dira: izena, helbidea edo jaioteguna (%68k); ematea gehien kostatzen zaizkienak, aldiz, datu fiskalak eta judizialak dira (hurrenez hurren, gazteen %2k eta %9k baino ez lituzkete erraz emango). Gainera, %43k erraz ematen dituzte edo emango lituzkete euren ideologiari buruzko datuak, %37k NANA eta %29k osasun-datuak.

Datu pertsonalak dituzten formularioak betetzean, datu horiek erabiltzeko baimena eskatzeko laukitxoak egonez gero, gazteen %20k besterik ez diote baimen hori ematen dutela. Nolanahi ere, gazteek hein handiagoan ematen dute baimena nagusiagoek baino.

Interneti dagokionez, sarean dabilzan hiru gaztetatik bik diote inork euren datu pertsonalak ez hartzeko, tresna informatikoren bat erabiltzen dutela, hau da, pasahitza edo spam-aren edo spyware-aren aurkako programaren bat. Sare sozialei erreparatuta, horien ezagutzailen erdiak baino gutxiago dira (%28) uste dutenak webgune horiek euren datu pertsonalen balizko erabilerari buruzko informazioa egokiro ematen dutela. Adinean gora egin ahala, are gehiago murrizten da ehuneko hori.



Gainera, gazteen %58k badakite datu pertsonalen intimitatea abusuen aurka babesten eta bermatzen duen lege bat dagoena; %49k Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren berri izan dute; eta gutxiagok, %29k, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren berri. Edonola ere, gehien-gehienei (%95i) gustatuko litzaieke euskal bulegoak informazio gehiago ematea ditugun datuen babes-eskubideei eta, arazoren bat izanez gero, egin behar denari buruz.

Beste azterlan interesgarri batzuk:

- **Datuak Babesteko Euskal Bulegoa eta Prospekzio Soziologikoen Kabinetea:** [*Datu pertsonalen babesari buruzko pertzepzio eta jarrerak*](#) (Soziologiazko Euskal Koadernoak bilduma, 25. zk.), Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2008.
- **Europako Batzordea:** *Flash Eurobarometer 225:* [*Data protection in the European Union. Citizens' perceptions*](#), 2008.